

# Argazkitzak OINARRIAK

## 1. Parte-hartzaileak

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean 2021/2022 ikasturtean matrikula ofiziala duten ikasleak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara.

## 2. Lanen betekizunak

- Parte-hartzaile bakoitzak 3 lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Argazkiek zehaztapen tekniko hauek bete beharko dituzte:

- Ez da onartuko argazki-muntaketarik.
- Kolore edo zuri-beltzean ahal izan dira.
- .jpg formatukoak izango dira eta kalitate handiena izan behar dute.
- Argazkiek ez dute markorik izan behar.

- Argazki guztiekin batera, testu bat aurkeztu beharko da nahitaez.

- Testu hau argazkia hartu zen lekuari, uneari edo testuinguruari buruzko deskribapen edo hausnarketa pertsonala izango da, baita egilearentzat duen garrantziari buruzkoa ere.
- IHEOko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dira: alemana, euskara, frantsesa, ingelesa eta italiera.
- Testuek 350 hitz izango dute gehienez.
- Arial 11 letra motan edo antzekoan eta 1,5eko edo tarte bikoitzean idatzita egongo dira. PDF formatuan bidaliko dira.

- Lanak originalak eta argitaragabeak izango dira.

- Baldintza hauek betetzen ez dituzten lanak ez dira lehiaketarako onartuko.

## 3. Gaia

Gaia, argazkiarena zein testuena, "Bidaia" izango da.

## 4. Lanak aurkeztea eta identifikatzea

- Lanak posta elektronikoz aurkeztu beharko dira. Emaila:  
[eoipiheoconcursos@gmail.com](mailto:eoipiheoconcursos@gmail.com)

- Mezu elektronikoak "Argazkitzak lehiaketarako" izenburua izango du. Ez da haren egiletzari buruzko aipamenik egingo mezulariaren gorputzean.

- Emailari hiru fitxategi erantsiko zaizkio:

- Lehena, argazkia izenburuarekin.
- Bigarrena, izenburu bera duen testua.
- Hirugarrenean, egilearen datu pertsonalak adieraziko dira: izen-abizenak, telefono-zenbakia eta matrikulatuta dagoen hizkuntza eta maila.

## **5. Lanak bidaltzeko epea**

Lanak hartzeko epea 2021eko azaroaren 15ean hasi eta abenduaren 12ko 23:59an amaituko da. Epea ezingo da luzatu.

## **6. Argazki irabazlea hautatzea**

-Saria obra osoari emango zaio, testuaren eta argazkiaren kalitatea kontuan hartuta, epaimahaiaren irizpideei jarraikiz.

- Epaimahiaren erabakia apelaezina izango da.

-Sariak eman gabe gera daitezke behar besteko kalitaterik ez badute edo oinarriekin bat ez badatoz. Era berean, epaimahaiak pertsonen ohorearen edo intimitatearen aurkako lanak, bai eta mezu arrazistak dituztenak eta indarkeriaren apologia egiten dutenak ere ezabatuko ditu.

-Emitza pertsonalki jakinaraziko zaie irabazleei, eta sare sozialetan adieraziko da ondoren.

## **7. Sariak**

Lehen saria: 80€ material didaktikoa erosteko + 30€ argazki digitalak errebelatzeko

Bigarren saria: 60€ material didaktikoa erosteko + 25€ argazki digitalak errebelatzeko

Hirugarren saria 40€ material didaktikoa erosteko + 20€ argazki digitalak errebelatzeko

## **8. Jabetza eta argitalpena**

Aurkeztutako argazkiaren jabetza egilearena izango da. Hala ere, IHEOk eskubidea du saritatuko obrak *Vox Populi* aldizkarian argitaratzeko eta beste sustapen-kanal batzuetan hedatzeko, hala nola prentsan eta sare sozialetan.

## **9. Oharrak**

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Oinarri hauek betetzen ez dituen edozein lan kanporatu ahalko da.